

GORROTO PLATONIKOA




Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Atenas, K.a. 387. Platon greziar filosofoak Akademia sortu zuen, eta bertan hainbat gairi buruzko eskolak ematen hasi zen: etika, psikologia, antropologia, epistemologia, metafisika, kosmogonia, hizkuntzaren eta hezkuntzaren filosofia... Sokratesen ikasle izana, Platonek berak ikasle bikainak izan zituen Akademiaren, Aristoteles esaterako.

Baina zorroztasuna funtsezkotzat jotzen zuen arren, ez zuen lortzen ikasle guztiak eskola hasteko garaiz iristea. Garai hartan denbora neurtzeko gailuak bazeuden, esaterako, eguzki-erlojuak eta klepsidrak. Klepsidra izena grekotik dator: *kleptein* hitzak lapurtu esan nahi du eta *hidor* hitzak, ura. Beraz, “ura lapurtuz” denbora neurtzen zuen gailua zen. Mekanismo soila zuten klepsidrek: ontzi bat urez betetzen zuten eta azpialdean zuten zulotxo batetik urari pixkanaka isurtzen uzten zioten, jario etengabe eta erregularra eraginez; hala, ontziko uraren mailak behera egiten zuten, bidean ontziaren barruan adierazitako denbora tarteak markatuz –edo bestela, markak ura isurtzen zen bigarren ontzi batean ipintzen zituzten markak, bete ahala orduak jo zitzaizkion.

Baina klepsidrak alferrikakoak ziren iratzartzeko. Morfeoren atzaparretatik ihes egiteko metodo bakarra oilarren kukurrukua zen, baina Atenasko Akademiaren ingurukoak ez ziren oso fidagarriak, nonbait, eta Platonek sistema zehatzagoa asmatu zuen. Besterik gabe, alarma bat gehitu zion klepsidrari. Behean hermetikoki itxitako beste ontzi bat erantsi zion, biak hodi baten bidez lotuta. Lehenengo ontziaren barruan sifoi bat ipini zuen. Aurreikusitako unea iristean, sifoiak ura botako zuen, mugitutako aireak bigarren ontzia beteko zuen eta goiko aldeko zulo txiki batetik ihes egingo zuen, teontzietan lurrinak egiten duen txistuaren modukoa eraginez. Horrenbestez, Platonek lehen iratzargailua asmatu zuen. Gai-



GLYPTOTHEK MUNICH

Platonek (K.a. 427-347), ikasleak akademiako eskoletara garaiz iristeko sistema baten bila, iratzargailua asmatu zuen, gizateriaren zoritxarrerako.

luari zintzarriak eransteako asmoa zuen, asmakizuna eraginkorragoa –eta gorrotagarriagoa– izan zedin. Baina ikasleez gupidatu zen, nonbait, eta ez zuen mehatxua bete.

Gerora, iratzargailua “hobetu” nahi izan zutenak arduratu ziren horretaz. Adibidez, ura isurtzen zen bigarren ontzian metalezko bolatxo betetako plater txo bat jarri zuten. Ura plater txoraino iristean, platera makurtzea eta bolak metalezko hirugarren ontzi batean jaustea eragiten zuten. Burrumba edonor esnatzeko modukoa izango zen. Beste bertsio batean, ontzia urez betetzean jausi egiten zen, eta harri bat metalezko plater batera jaurtitzen zuten katapultak modukoa abiarazten zuten. Kandela baten barruan bola bat sartuz gero, argizaria urtzean bolatxoa askatu eta metalezko gainazala jotzen zuten.

Eta hala, goizeroko tortura mekanismoa apurka finduz joan ziren, baina lehen iratzargailua asmatu izanaren zailtasunak ohorea Platoni dagokio. Orain badakigu goizero noren izena madarikatu. ■

Lehen Mundu Gerrako beste milioika biktimak

Hamasei milioi animalia inguruk parte hartu zuten Lehen Mundu Gerran, bi aldeetako armadetan: txakurrak, katuak, ekipamendua garraiatzeko zaldiak, mandoak, astoak eta ganbeluak, uso mezulariak...

Zaila da gerretan biktima kopurua zehaztea, are zailagoa animaliak badira. Baina haien erdia baino gehiago hil zirela kalkulatu da. Zortzi milioi zaldi inguru hil ziren, eta milioitik gora txakur ere galdu ziren frontean. Gizakietan bezalaxe, animalietan ere biktima “zibilak” izan ziren, gainera. Horrenbestez, Gerra Handiko hildako gizaki kopuru izugarriari (hamar eta 31 milioi artean) beste hamar bat milioi animalia gehitu behar zaizkio. ■



650 ofizial eta soldadu aliatuk irudi hau osatu zuten 1915ean, frontean hildako zaldien omenez.